Eta hori dena herritarrekin hitz egin gabe, erabakitzeko aukera eman gabe eta iluntasun osoz. Metro-pasantearekin gertatzen ari dena esanguratsua da: EAJ eta PSE-EE propaganda etengabea egiten ari dira komunikabide jakin batzuen bitartez, baina ez dira gai, ordea, herritarren aurrean jartzeko eta haien galderei edo iritziei erantzuteko.

Udalbatzak informazio prozesu bat abian jartzea onartu zuen eta Udal Gobernuak ez du ezer ere egin. Eta metro pasanteaz herritarrei kontsultatzeko aukeraz galdetzen zaienean (9.000 donostiarrek eskatu dute-eta beren sinaduraz), Udal Gobernuako kideak kontra agertzen dira beti.

Erabaki horien artean azpimarragarria da, aurrekontu proiektu honek, Zubietan erraustegia egiteko bide emango diola, herritarren osasuna kolokan jarritz.

Zabor tasa % 8 igo du datorren urterako Udal Gobernuak. Antza denez, Zubietako erraustegiak ekarriko duen diru xahuketa itzelaren bidea prestatzen ari da. Izan ere, baliteke donostiarrek 2051. urtera bitartean, 260 milioi euro ere ordaindu behar izatea erraustegia egiteko. Izugarria.

Udal Gobernuak errausketaren aldeko apustua egin du eta Zubietan erraustegia jartzeko eman beharreko pauso guztiak ematen ari da: donostiarren osasun eskubidea bazterrean utzita eta erabakitzeko eskubidea ere ukatuta. Inposaketa elkarrizketaren gainetik. Eta gezurra ere erabilia; erraustegiak zabortegirik ez duela behar esanez, adibidez (nahiz eta Bizkaian erraustegia dagoen eta zabortegiak, itxi ordez, zabaltzen ari diren).

Udal Gobernuak errausketa sustatzen ari da birziklapenaren kaltetan. Badaki-eta zenbat eta gehiago birziklatu, orduan eta zailagoa dela erraustegiaren bideragarritasuna. Erraustegiari bide ematea, osasunaren kontra joatea da eta herritarren lehentasunak ahaztea. Interes ulertezinak dira, pertsonak aurretik jartzen dituenak.

Guzti honengatik esan dezakegu Aurrekontuen egitasmo honek Gubernantza berria alboratu duela, ez baititu bere irizpideak erabili.

Aurrekontu proiektu bat, hiriko marka aurrerakoiak atzera eramango dituen, a) arlo sektorialetan ere hiriari atzera egitea eragingo diona. b) genero ikuspegia alboratzen duena c) Donostia lagunkoia izateari muzin egiten diona.

A. arlo sektorialetan ere hiriari atzera egitea eragingo diona

Talde honek aurkeztu dituen zuzenketa partzialetan ikus daitekeen bezala, egungo gobernuak aurkeztu duen aurrekontu proiektuak hiri eremuan ez ezik, bereziki zigortzen ditu arlo eta departamentu esparru batzuk ere –horra, besteak beste, Gizarte Ongizatea, Parte Hartzea, Merkataritza, Euskara, Berdintasuna, eta Giza Eskubideetan- Donostia atzeranzko bidean ezarrit.

Kontuan harturik proiektu honetan 2016an baino 38,6 milioi euro gehiago daudela, esanguratsua da nola euskarak pisua galtzen duen aurrekontu orokorrean (2016ko % 0,67tik % 0,62ra), nola Hezkuntzako partidaren pisuak ere jaisten jarraitzen duen (% 1,86 2015ean, %1,77 2016an eta %1,68 2017an) eta nola gauza bera gertatzen den Gizarte Ongizartearen Departamentuan, non 2015eko parametroetara itzultzeko, eta aurrekontu orokorrarekiko portzentajea kontuan hartuta, 1.200.000 euro gehiago bideratu beharko liritekeen.

B. genero ikuspegia alboratzen duena

Beraz, begi-bistakoa da gaur egungo Udal Gobernuarentzat zeharkako gaiak ez direla lehentasuna, inondik ere, ez herri administrazioan ez gizartean, eta ez dituztela gai horiek bultzatuko. Eta hori bera erakusten digu aurrekontu proiektu honek; izan ere, genero ikuspegiaren azterketarik ez du aurkeztu, berriro ere, aurrekontu proiektuan. Iazko hutsunea erreparatzeko konpromisoa ez du bete eta ohar baten bidez hutsunea zuritu nahi izan du baina errealitatea da 2017rako Aurrekontuen Proposamenak ez duela genero ikuspegia baloratzen duen txostenik, eta, beraz ez dago konprobatzerik genero ikuspegia txertatua dagoen ala ez, onarpena eman baino lehen.

Sentsibiltate falta hori diru partidetan ere islatzen da. Izan ere, Berdintasuna urtetik urtera pisua galtzen ari da aurrekontu osoan. 2015ean aurrekontuaren %0,20 zen; 2016an, %0,18 eta datorren urterako proiektuan, %0,17. Eta berriro diogu: guztira 40 milioi euro gehiago izanda.

Berdintasunaren alorreko jarduna ezin da mugatu hitz ederretara eta egun jakin batzuetako agerraldietara edo diskurtsoetara: politika honek gainerakoak busti behar ditu, eta planteamendu koherenteak, eragile sozialekin konpartituak, eta aurrekontuetan konpromiso ekonomiko zehatzak izan behar ditu. Ez dago halakorik gaur egungo Udal Gobernuak aurkeztu duen egitasmoan.

C. Donostia lagunkoia izateari muzin egiten diona.

Alde batetik, 2016ko aurrekontuan Donostia Lagunkoia proiektuarekin jarraitzeko hainbat partida exekutatu gabe gelditu dira eta, bestetik, lagunkoian parte hartzen duten eragileek foro desberdinetan adierazi dute udal gobernuaren aldetik nabari duten desaktibazioa proiektuarekiko.

Esate baterako, gizarte-ekintzako kontseiluan lehenengo legegintzaldian Donostia Lagunkoian aktiboki parte-hartu zuten hainbat pertsona eta elkarte, azkeneko hilabeteetan lekuz kanpo sentitu direla adierazi dute: udalak ez diela informazioa pasatzen, proiektua geldirik dagoela somatzen dute, talde-promotorearen rola aldatu dela, parte-hartze zuzena

asko murriztu dela, lehengo legegintzaldian eragileekin zegoen interakzioa eta elkarrizketa eten egin dela...

Guzti honengatik esan dezakegu Aurrekontuen egitasmo hau hiriko marka aurrerakoiak atzeranzko norabidean jarriko dituela, orain arteko Donostia ezaugarritu dituen dinamikak galduz: euskararen hiria, hiri parekidea, hiri lagunkoia...

Argi dago, beraz, zeintzuk ez diren Udal Gobernuaren lehentasunak.

Aurretik azaldutako guztiak horrela, EH BILDU udal taldeak OSOKO ZUZENKETA AURKEZTEN DIO honenbestez 2017rako **AURREKONTU PROIEKTUARI**, berriro mahaira itzuli eta hartan ez dagoen akordio politikoa eta soziala lehenetsiko diren aurrekontua presta dadila eskatuz. Hartan jasoko dira donostiarrek dituzten arazo objektibo errealei erantzun eraginkorra emango dieten kopuru ekonomiko errealak bezain premiazkoak, kontuan harturik oraindik ere bizi dugun krisi ekonomiko egoera larria. Horrez gain, gastu sozialetan aurkeztu den jaitsieraren aurrean, inbertsio egokia eskatzen dugu arlo horretan, bai eta zeharkako arloetan ere, hala nola Hezkuntza, Berdintasuna, Euskara edo Lankidetzata etaletan.

Donostian, 2016ko abenduaren 7an



Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramailea

ALUKKUTUTKIMO ZUENNETA-PROGNOOSIN (PARTIKULAN)
 OIKALMASI PARANALLI PIRI SUUNTAUS
 BI-DU

N° P	ZUENNETÄN NIMI TYÖ- ja MAHDOL	PROGRAMMA	KORTTELIN PARTIA	AZALSEN DESCRIPCION	ARTIN AVO	PÄSEKÄN ZUENNETÄN MÄÄRÄ	ZUENNETÄ-PROGNOOSIN		ZIKKA MÄÄRÄ
							LUKUNNAN MÄÄRÄ	LUKUNNAN MÄÄRÄ	
1	Ennen								
2	Ennen								
3	Ennen								
4	Ennen								
5	Ennen								
6	Ennen								
7	Ennen								
8	Ennen								
9	Ennen								
10	Ennen								
11	Ennen								
12	Ennen								
13	Ennen								
14	Ennen								
15	Ennen								
16	Ennen								
SUUNTAUS YHTEÄKSI							000	000	000

EDUKI EKONOMIKORIK GABEKO ZUZENKETA PARTZIALAK (2-16), EH BILDU TALDEAK AURKEZTUAK

2.- Banketxeek Donostian dituzten etxebizitza hutsak lagatzea

Justifikazioa

Donostiak marka latza du: bizitzeko hiririk garestienetako bat izateaz gain, etxebizitzaren metro koadroa garestienetakoa ere badu. Aldi berean milaka etxe ditu, gaur egun, hutsik.

Donostiako Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak formula propioak abian jarri zituzten, bigarren etxebizitza hutsak merkatura atera daitezkeen bultzatzeko erabilera emanez, hala erosteko nola alokatzeko. Bada unea agerian jartzeko Donostian kokatutako banketxe asko azken urteetan herritarren etxebizitzaz hornitu direla, dela herritar batzuek ordaintzerik izan ez dutelako, dela etxe agentzia pribatu gisa jardutea izan dutelako eginkizun nagusia.

Halaxe egin du Kutxa zenak, Donostiak eta Gipuzkoak fundatutakoa izan arren. Bankarizatu eta Kutxabank bihurtu ostean, erabilerarik gabeko hainbat eraikin eta etxebizitza huts ditu bere ondarean, edo parke hori kudeatzeko sorturiko putre funtsean. Gogorarazi behar dugu haren organo erabakitzailean alkatea dagoela, Udalaren ordezkari.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau proposatzen dugu:

- Eskatzea Kutxabanki (edo, horren ordez, etxebizitzak saldu dizkion putre funtsari), SAREBi eta Donostian diren finantza erakunde guztiei beraien etxe hutsak lagatzeko, Donostiako Etxegintzak daukan Alokabide programaren, edo antzeko tresnen bidez.

3.- Inbertsio eta gastuak egiteko irizpideak pertsonengan zentratzea

Justifikazioa

Mantentze lanak direla edo inbertsio berriak direla, asko dira etengabe egin behar diren gastuak, ugari dira puskatu eta konpondu beharrekoak, aldatu eta berregokitu behar

direnak, eta abar. Lanak aukeratzeko irizpide jakinak erabiltzeak lehentasun argi eta zentzudunen arabera egitea dakar. Irizpide horiek pertsonengan jartzen baldin badute beren fokoa, lehentasun zerrendak jite eta ikuspegi sozial argia izango dituzte.

Irizpide horiek sail desberdinetara hedatuz gero, aurrekontuaren baitan baina pertsonengan zuzenean eragiten dituzten lanak izango dira lehendabizi gauzatuko direnak, direla puntu kritikoaren ezabatzea, direla segurtasuna ziurtatzea, eta abar.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- Sail desberdinetako inbertsioak edo gastuak aukeratzeko, lehentasuna emango zaie, eta lehendabizi egingo dira pertsonen bizi-kalitatean era zuzenean eragiten dutenak.

4.- Oinezkoentzako pasabideak 0,0 kotan jartzea

Justifikazioa

Donostia lagunkoia izatea jarri du helburu Udalak baina egitasmo baten izen hutsala bihur daiteke, herritar orok (adinekoak, mugikortasun mugatua dutenak, ezgaitasuna duten pertsonak...) hirian eroso bizitzeko aukerak ziurtatzen ez badira. Eta erraztasun horien artean, irisgarritasuna funtsezkotzat jo behar dugu; hiritik mugitzea autonomiaz eta baldintzaturik egon gabe, edonora joateko aukera edukita, oinarrizko bizitza-kalitatearen parametroetan kokatzen baita.

Hala egoera anitzetan espaloi baten koska jaitsi eta igotzea ezintasuna bihurtzen delako, pasabideen pareko pasarteetan nibelak egokitzeak sistemak zabaldu dira gure inguruan eta Donostia maila horretan aitzindari eta eredu garri izan da askotan. Hala ere, urte luzeetan ez baitira izan sentsibilizazio maila bereak edo zonalde guztiak ez direlako berdin zaindu, oraindik zonalde askotan kosta zero delakorik gabeko espaloiak badira horrek dakarren baldintzatzarekin kotxe-kapotak, aulki gurgildunak, oinezko ezintasunekin -unekoak edo iraunkorrak-, eta abar luze batentzat.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau proposatzen dugu:

- Zoladura eta espaloi berrien edo ber-urbanizatzeko lanetan, irisgarritasunari begirako irizpiderik zorrotzenak erabiltzea. Ondorioz oinezkoentzako pasabide guztiak 0,0 kotan jarriz egingo dira.

5.- dBuseko autobus-zerbitzuen gehienezko maiztasuna ordu erdian kokatzea

Justifikazioa

Garraio publikoa kalitatezkoa izatea ezinbestekoa da, kotxeen erabilera gutxiagotzeko, eta, beraz ingurumenean egoki eragiteko. Eta ezinbestekoa da ikuspegi sozial batetik, berdintasunean eragiten duelako, denontzako hiria elikatzen duelako.

Donostiako autobusetako sistema eredugarria da zentzu askotan baina oraindik zer hobetu badu jarritako helburuei begira eta atzean geratu nahi ez badu. Hobekuntzen artean maiztasunak jaitea da erronka. Garraioaren izaera soziala maiztasun laburrak izatean datza, besteak beste, eta oraindik badira lineak eta uneak non maiztasunak ordu erdian gainditzen diren.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau proposatzen dugu:

Donostiako Tranbia Konpainia / CTSS udal sozietateak zerbitzuak hobetzeko bere aurrekontuaren parte bat erabiltzea, 30 minutuko maiztasuna gainditzen duten lineetako maiztasunak murrizteko, horren arabera dBus linea guztietan, eguneko edozein unetan, gehienezko maiztasuna ordu-erdirokoa izango da.

FK/CIF
P2027400A /
TEE/REL
01200697
10050e.1
2011-08

6.- dBizi zerbitzua auzo garaietara eta ekialderantz zabaltzea

Justifikazioa

Kalitatezko garraio sistema egoki eta orekatua behar da bere osagai desberdinen artean. Garraio publikoaren osagaien artean, Donostian bizikletak garrantzia berezia du, izan ere, batez beste desplazamenduen %4a inguru bizikletaz egiten da egunero. Ondorioz, garraio bide honentzako zerbitzu publiko propioa eraiki dugu: dBizi udal zerbitzua.

Dena den, zerbitzuaren zabalpena modu desorekatuan egiten ari da, erdiguneko eta behealdeko auzoetan batik bat, eta auzo garaien kaltetan. Bereziki kezkatzekoa ere bada Donostiako ekialdeak oraindik ez duela zerbitzurik.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- Adostea dBizi sistema kudeatzen duen enpresarekin, zerbitzuaren zabalpenean auzo garaiak edo-eta ekialdekoak lehenestea eta horren lekuko, 2017an zehar, Herrerako Topo geltoki ondoan eta Egiako Iruresoro plaza inguruan geltoki berriak jartzea.

7.- Klausula sozialak inplementatzeko baliabideetan sakontzea

Justifikazioa

2013ko ekainaren 10ean onartu ziren "Donostiako Udalaren kontratazioan gizarte, ingurumen, etika, lan, hizkuntza eta berdintasun arloko irizpideak sartzeko jarraibideak", horien inguruan iniziatiba ugari eta desberdinak eman dira; haiek betetzeak hiritarrei eman beharreko zerbitzuan kalitate hobekuntza esan nahi duelako, baita Udalaren eremuan lan egiten duten pertsonentzat ere, nahiz eta ez izan udal-langile. Horregatik "klausula sozialak" izenarekin herritartu dira.

Klausula sozialak edo jarraibide horien inplementazioak kontrola ziurtatzeko eta ebaluazioa errazteko instrumentuak behar ditu, zehaztasunez eta eraginkortasunez beren helburuak betetzeko. Inplementazioan kokatua baitago erronka. Eta instrumentuak hornitzea bezain garrantzizkoa izango da borondate politiko sendoa agertzea. Sendoa eta iraunkorra, bakarrik borondate irmoak lortuko baititu jarraibideen hedapen eta aplikazio egoki eta iraunkorra.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- 1- Kontratazioari dagozkion irizpide sozialak berraztertu eta eguneratzea eta haien berri ematea.
- 2- Klausula sozialak ezartzeari buruzko prestakuntza jardunaldiak egitea, pertsonal teknikoarentzat.
- 3- Klausula sozialen betekizuna kontrolatzeko eta egiaztatzekeo prozedura bat abian jartzea.

8.- 2018ko aurrekontuen egitasmoan genero ikuspegia ziurtatzea

Justifikazioa

2014ko apirilaren 25ean Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana. Udal Gobernuak azaroan aurkeztu duen 2017rako Aurrekontuen proposamenean bertan, ohar baten bidez, ezagutarazten da Planaren 1,2, neurriak eskatzen duela Genero ikuspegia udal aurrekontuetan txertatzea. Ohar berak dioenez, Berdintasun atalak parte hartu du Aurrekontuen egitasmoaren azterketan baina ez du aukerarik izan, egitasmoari legokiokeen txostena egiteko, informazio eta denbora faltagatik.

Arrazoi asko daude txosten horren beharra oinarritzen dutenak, gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren ikuspuntutik eta gobernantza egokiaren ikuspuntutik,

informazioa, gardentasuna, egokitasuna eta orientabideak eman behar dituelako. Txosten hauek konpromiso berriak dira administrazio guztietan, baita Udaleko egituran ere eta guztiz beharrezkoa da bere inplementaziora pasatzea, eta horretarako behar diren neurriak (informazio fluxuak, epeak eta abar) hartzea genero ikuspegiari buruzko txostena, aurrekontuen egitasmoarekin batera egon dadin guztion eskura.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- 2018ko aurrekontuen egitasmoa era egokian egituratzeko Genero ikuspegiari buruzko txostena egin ahal izateko, dagozkion barne prozedura guztiak garaiz eta era egokian martxan jartzea, eta horretarako 2017an zehar behar diren pausuak ematea

9.- Rajoyren Dekretuek ezarritako inposaketei aurre egitea

Justifikazioa

Espainiako Gobernuak, PPren zuzendaritzapean eta Mariano Rajoy buru duela, ezaugarri izan du, besteak beste, murrizketa zorrotzak bultzatzea eta egitea hezkuntza eta osasuna bezalako behar-beharrezko eremuetan, bai eta herritarren bizi kalitatearen parametroa ezartzen duten eta oinarritzko eskubideak bermatzen dituzten funtsezko zerbitzu publiko ia guztietan ere.

“Rajoyren dekretazoak” izenez ezagutu diren dekretuak tarteko, legezko traba ugari, gehiegi, jarri ziren administrazio publikoen ohiko funtzionamendura begira, hala nola enplegatu publikoen berritze etengabe eta iraunkorrari begira ere. Eta, horrekin batera, funtzionamendu horri eusteko bidea zerbitzu-kanporatzeak eta pribatizazioak areagotzean ezarri zen. Administrazio eta zerbitzu publikoak indartzearen kontra joateaz gain, horrek guztiak arazo ugari ekarri ditu, hala nola, gastu arrunta murriztea, enplegu publikorako eskaintzak eta ordezkapenak eragozteak, lan kontratazioak mugatzea eta lan murrizketak ugaritzea. Oraindik ere gastu arrunta guztiz mugatua dago eta Pertsonaleko kapituluaren ezarritako mugek behar errealak benetan asetzeko Lan Eskaintza Publikoak eragozten dituzte.

Gure hirian behar ugari daude eta, esate baterako, guztiz funtsezkoa da Gizarte Ongizateko plantilla handitzea, atal horrek ematen dituen zerbitzuak udal langileen bidez izateko, kanporatu eta pribatizatu gabe.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- Beharrezko formula legal eta juridikoak bilatzea, enplegu publikoko plantilla indartuz, administrazio publikoaren behar organikoak betetzeko. Horretarako,

beharrezkoak diren Lan Eskaintza Publiko guztiak egiteko konpromisoa hartzea, betiere Udaleko edo/eta udal erakundeetako Langileen Batzordearekin ados jarri eta gero.

10.- Pasaiaiko Badia birgaitzea, eta Donostiako plan estrategikoan udalerrri mugakideen errealitatea jasotzea

Justifikazioa

Donostiaren garapen estrategikoa biziki kritikatu izan da, garapen hori ezinbestean mugakide dituen udalerriei guztiz loturik egon arren, berauen iritzirik eta partaidetzarik gabe burutu delako.

Etorkizunari begira, errealitate hori oker handia izan delakoan, Donostiak badu bideratzeko aukera garrantzitsua Pasaialdea birgaitzeko proiektuari esker. Eredu zabala du Donostiak egoki eragiteko: herritarrek izan behar dituzten zerbitzu publikoak Eskalantegi edo Azkuene kaleetan edo Trintxerpen, adostasunez lantzeaz gain, badira modu aktibo, solidario eta ikuspegi zabalaz jokatzeko beste eremuak Pasaialdea birgaitzeko egitasmoaren baitan; birgaitze hori premiazkoa bezain beharrezkoa izanda, badia osoan eragingo duelako, eta ondorioz, mugetan diren Altza, Herrera edo Bidebietako zonaldeetan zuzenean eragingo du. Beraz, ardura zeharkakoa bezain zuzena izango du Donostiako Udalak eta ezin du bere arduraz ihes egin.

Donostia Gipuzkoako hiriburua dela abiapuntu, bere inguru hurbileko udalerrietarako ezinbesteko elementu eragile eta eraldatzaile kontuan hartuta, ardura horren erantzunkizunei begira, talde honek **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten du:

- Modu aktibo eta solidarioz jokatzea, Pasaiaiko Badia birgaitze integralean eskudun diren erakunde nahiz agintariekin batera lan eginda, hala nola bertako herritarrekin batera, eta Donostiako garapen estrategikoa ikuspegi endogenotik egin gabe.

11.- Bretxako Arrandegia eraikina osotasunean zerbitzu publiko eta komunitarioak emateko erabiltzea

Justifikazioa

Udalak berreskuratu du, jada, Bretxako Arrandegia eraikina, hiriko aurreko gobernua eta Bretxa konplexua kudeatzen duen enpresa ados jarri eta gero.

Hala ere, gaur egungo Gobernuak ez du inolako pausurik eman orduan ezarritako norabidean, Parte Zaharreko eta Erdialdeko Osasun Zentroa Arrandegi eraikinean jartzeko egindakoa albo batera utzita.

Parte Zaharreko talde eta elkarte batzuek gaur egungo Gobernuari adierazi diote eraikin hori erabili behar dela auzoak falta dituen zerbitzu publiko eta komunitarioak emateko.

Hori dela-eta, eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa hau aurkezten dugu:

- Bretxako Arrandegia bere osotasunean eraikina Parte Zaharrari eta Erdialdeari zerbitzu publikoak eta komunitarioak emateko erabiltzea.

12.- Amara Berriko plazak biziberritzeko planak auzotarrekin batera erabakitzea

Justifikazioa

Amara Berrin kokatzen dira mota guztietako plazak: jolas-leku, apaingarriak, iturri bereziak, zabalak, etxeen artean,... Auzoa beraien inguruan eraiki eta zabaldu eta... zahartu da. Hau da, egin berri zuten edertasuna edo funtzioa galdu dute hainbat plazek eta berritzea beharrezkoa dute, arazo berriak sortu aurretik.

Azken aldian berritze-proiektuak egin dira, Merkatari, Etxeberri, Donostiako Kofradiak plazetan bezala. Berritze horiek zalantzarik gabe, hobekuntzak ekarri ditu baina aldaketa guztiak bezala, eragozpenak eta iritzi kontrajarriak ere, itxuratik harago funtzioak berrikusi behar direlako, egungo behar eta ohituretara egokituz. Besteak beste, eskaera zabaldua da plazak estaltzea, familiek dituzten aisialdi beharrak gure hiri euritsuan kaleak ematen dituen sozializatorako aukeraz baliatzeko baina estalpeak ematen duen babesarekin. Zein plaza eta nola estali, zein zati umeen jolaserako gorde eta zer funtzio jarri beste zatietan,... herritarrekin batera aztergai jarri behar dela sinetsita gaude.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- Birgaitze eta biziberritzeko lanak behar dituzten Amara Berriko plazak -Soldadu, Marinel edo Probestu izan daitezkeen bezala-, auzotarren iritzi eta ekarpenak aintzat hartuta berritu daitezela, auzotarrak baitira auzoaren beharrak eta plazen egungo erabilerak hobekien ezagutzen dituztenak.

13.- Udal artxibategi historikoa berraztertzea, balizko lurzoru kutsatuei dagokienez.

Justifikazioa

Berehalako erronka du Udalak bere barneko koordinazio eta komunikazio sistemak hobetzen. Neurri asko hartu beharko dira etorkizunean baina, beste beharren artean, larritasuna du ongi identifikatzea balizko lur eremu kutsatuen artean zeintzuk izan daitezkeen trataera berezia behar dutenak berehalakoan edo zeintzuk diren etorkizuneko interbentzio batean trataera berezia beharko dutenak. Eta horretarako Udalak baditu bide propioak erabiltzeko aukera bat ezin duena gutxietsi: bere artxibategiko ikerketa.

Udal artxibategian gordeta daude iraganeko lantegiei buruzko espedienteak, bai irekiera/obra lizentziak, bai aktibitate jarduerak arakatuz gero, oso informazio baliotsua eskura daiteke epe laburrean, balizko lur kutsatu moduan identifikatuak dauden lur-eremuetan zentratuz gero.

Halaber, apirilean Udaltzarak onartu zituen neurrien artean prestakuntzari dagokiona lehenbailehen abian jartzea berehalako helburua da, atzerapenik izan ez dezakeena. Baina prestakuntza hori zabaldu behar da amiantorekin zuzenean harreman fisikoa ez duten langileen artean, bereziki, komunikazio egokia azkartu nahi badugu.

Era berean gaiak izan eta izango duen garrantzia ikusita, amiantoarekin

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

1- Udal artxibategi historikoa berraztertzea (jarduerak, obrak...), haietan garatutako jarduera dela-eta kutsaduraren bat izan dezaketen lurzoru susmagarriak identifikatzeko eta horren berri emateko Eusko Jaurlaritzari, kutsatuta egon daitezkeen balizko lursailen mapan txertatu ahal izateko.

2- Amiantoa duten eraikinetan edo azpiegituretan lan egin behar izaten duten udal langileentzako informazio eta prestakuntza neurriak berehala ezartzea, haren arriskuaz edo hark osasunean izan ditzakeen ondorioekin lotutakoan inguruan.

Horrekin batera, amiantoarekin lotura ez-fisikoa izan dezaketen gainerako udal langileentzat berezko prestakuntza aurreikustea, berehala komunikatu eta erabakiak hartu behar diren garrantziaz ohartarazteko, osasunarentzat dituen arrisku edo ondorioak direla eta.

14.- Kultura- eta arkitektura- ondare publikoaren aldeko tresnak

Justifikazioa

Donostiak ondare historiko eta kultural handia du. Eta hori, hiriarentzat eta bere irudiarentzat balio erantsia izateaz gain, zaindu beharreko kapital eta aktibo bat ere bada: logika horri eutsiz, Donostia da hirigintzako eta eraikitako ondarea babesteko plan berezia moduko tresna duen hiri bakanetakoa.

Aldiz, kultur ondare publikoa zaintzea eta ondare horri balioa ematea ez dira izan funtsezko elementu bukatzera doan Europako kultur hiriburutzaren urte honetan. Egitasmoaren baitako elementuak alde batera utzita, kontraesan eta gatazka ugari izan dira hirian urtebete honetan, askotan Udal Gobernuak harturiko erabakiekin lotuta zuzenean: dela Arte Ederretako eraikinaren babesaren gainean egindako gestioak, dela Mirakruz-19ko eraikinaren ingurukoak eta abar..

Gaiak duen izaera multidisziplinarra askotan talkan dago udaleko egituratzearekin, edo hiritarren nahiak udaleko egitasmoekin. Horregatik talde honen ustez aniztasun eta elkarriketa horiek balioan jartzeaz gain bideratzea ezinbestekoa jota, talde honek egin zuen proposamena Ondare Historiko-Artistikoa Babesteko Kontseilu Sektoriala Kontseilua sortzeko. Bere sorreraren bidez, etorkizunean kultura ondareari begirako funtzio garrantzitsuak beteko zituzkeen arren, eta hiriko eragileek espresuki aitortu zioten arren, ez zuen udal gobernuaren babesa jaso baina talde honen ustez joratu behar dugun bidea da. Laster PEPPUC delakoaren errebisioa izango da eta elkarriketarako gune egokia izatea ezinbestekoa izango da.

Halaber, babestea nahikoa ez delakoan ondarea balioan jarri eta bere ezagupena hedatzeko mekanismoetan sakondu beharra dagoelakoan gaude.

Horiek horrela, eta ondare publiko babestuari balioa emateko asmoz, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau proposatzen dugu:

1. Sortzea elkargune bat Ondare historiko-artistikoaren babes, ezagupen eta zabalpenari buruz, eztabaidatzeko eta lan egiteko, non talde politikoek eta aipatutako gaien interesa duten pertsona juridikoek edo fisikok parte hartuko duten.
2. Ezartzea babestutako eraikin publikoen balioei buruzko seinaleetika bat, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera, eta Hiriburutzaren testuinguruan egindako lanari segida emanez.

15.- “Gros-Uliako Auzoetxea” egitasmoa bideratzeko kudeaketak egitea

Justifikazioa

Donostia, dinamika ugariaren kabi, hiri bizia da. Gazte eta kultur mugimenduek egitasmo anitz garatu dituzte beridanik, eta hala jarraitzen dute. Dinamika hauen garapenean lagungarri izaten da kideak biltzeko guneak izatea, bai eta egitasmoak bertan gauzatzeko espazioak. Kulturaren ekosistemaren baitan Udalak herritarrei baliabideak erraztea izan behar du helburu, besteak beste, egitasmoen garapen naturala egin dezaten, injerentziarik gabe. Eta baliabideen artean lokalak erraztea eginkizun inportanteenetakoa da, auto-gestioan oinarri duten egitasmoei babes eta egonkortasuna emate aldera, elkarren arteko errespetuan abiatuta.

Kortxenea izan da Donostiari dinamismoa eman dion horietako egitasmo bat, kultur eragileen aitortza izan zuena, eta egun hiriko ekosisteman bere falta nabarmen sumatzen dena. Udalak badu oraindik Kortxoeneak utzitako hutsunearekin zorra kitatzeko modua, lokal berria erraztuz gero, eta horretarako egokia da udalarena den eta hezkuntza-afekziorik ez duen lokala, Zemoria kaleko 20. zenbakian dagoena, “Gros-Uliako Auzoetxea” izateko zerbitzura jartzea. Auzokide eta gazteek beraiek, udalarekin elkarlanean, definitu beharko dute zein Auzoetxe eredu nahi duten.

Horiek horrela, talde honek **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten du:

- Donostiako Udalak Zemoria kaleko 20. zenbakian duen eraikina Gros-Uliako Auzoetxea izateko bideratzea, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailarekin dagozkion kudeaketak egitea. Auzoko gizarte eragileekin, Kortxenea zenaren gazteekin barne, partaidetza prozesua egin beharko da, auzo-kudeaketa eredia definitzeko.

16.- 2018ko Partaidetzazko Aurrekontuak ziurtatzea

Justifikazioa

Herritarrei entzutea eta hitza ematea Udalak egin behar duen ariketa iraunkorra izanik, gai batzuetan horrek hartzen duen dimentsioa askoz ere esanguratsuagoa da. Argi da aldea badagoela herritarrei galdetzen zaienean ea ze koloreko argiak nahi dituzten festa batean, edo zenbat eta zertarako erabili behar den udaleko aurrekontuaren dirua.

Udaleko aurrekontu parte hartzaileak lortzea denbora ematea eta esfortzuak inbertitzea eskatzen du: prozedura jakinak martxan jarri, sail desberdinak koordinatu, lehentasunak argitu, informazioa emateko materiala prestatu, argipenak emateko bilketak

egin, udal-langileak herri-eskera baloratzera eta proiektuak idaztera bideratu. luze doan zerranda osatu arte. Herritarren parte hartzeak beraiek ongi informatuak izatean datza, lehenik eta behin, eta beren iritziak jasotzeko baliabideak jartzean bigarrenik; bi printzipio nagusi gogoratzeagatik. Direnak direla, Donostiako udalak atzerapauso nabarmena eman du, azkeneko bi aurrekontu-egitasmoak ez baitira parte hartzaileak izan. 2016koak aldaketa aitzakia, 2017koak ezin azaldu eta hau ohitura honek azkeneko urteotan aurreratutako altxorra kareletik botatzeko arriskuan jarri du.

Horiek horrela, **eduki ekonomikorik gabeko zuzenketa** hau aurkezten dugu:

- 2018an udalak Partaidetzazko Aurrekontuak egitea eta horretarako, aurrekontu proiektuak jaso beharreko inbertsioa eta gastu nagusiak prozesu parte hartzaile egoki baten bidez Donostiako auzotarrekin definitzea, dagozkion barne prozedura guztiak martxan jarriaz ere.

Donostian, 2016ko abenduaren 7an

IFK/CF
P2007400A /
TEE/REL
01200697
10650n.1
2011-06



Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga,
EH Bildu udal taldeko bozeramailea.

RESUMEN ENMIENDAS 2017

ENMIENDA	GASTO		INGRESO		SALDO		
	AUMENTO	DISMINUCION	AUMENTO	DISMINUCION	FINANCIACION	NECESIDAD	DIFERENCIA
CORRIENTE	1.339.700,00	1.926.000,00	300.000,00	0,00	9.916.023,72	1.339.700,00	8.576.323,72
DE CAPITAL	4.505.000,00	10.843.647,17	10.275.052,83	17.500.000,00	21.118.700,00	29.695.023,72	-8.576.323,72
TOTAL	5.844.700,00	12.769.647,17	10.575.052,83	17.500.000,00	31.034.723,72	31.034.723,72	0,00

RESUMEN ENMIENDAS 2018

ENMIENDA	GASTO		INGRESO		SALDO		
	AUMENTO	DISMINUCION	AUMENTO	DISMINUCION	FINANCIACION	NECESIDAD	DIFERENCIA
CORRIENTE	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
DE CAPITAL	1.700.000,00	2.398.000,00	1.302.000,00	2.000.000,00	3.700.000,00	3.700.000,00	0,00
TOTAL	1.700.000,00	2.398.000,00	1.302.000,00	2.000.000,00	3.700.000,00	3.700.000,00	0,00

RESUMEN ENMIENDAS 2019

ENMIENDA	GASTO		INGRESO		SALDO		
	AUMENTO	DISMINUCION	AUMENTO	DISMINUCION	FINANCIACION	NECESIDAD	DIFERENCIA
CORRIENTE	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
DE CAPITAL	6.775.994,15	0,00	6.775.994,15	0,00	6.775.994,15	6.775.994,15	0,00
TOTAL	6.775.994,15	0,00	6.775.994,15	0,00	6.775.994,15	6.775.994,15	0,00

RESUMEN ENMIENDAS 2020

ENMIENDA	GASTO		INGRESO		SALDO		
	AUMENTO	DISMINUCION	AUMENTO	DISMINUCION	FINANCIACION	NECESIDAD	DIFERENCIA
CORRIENTE	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
DE CAPITAL	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00
TOTAL	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00	0,00

AMBITUO AND EXERCITIA PROF OAMEN PARTIALUM
 EMENDAS PARCALES PRESENTAS
 8101

Nº ZONETA ACTA para Emendas	PROGRAMA	MONEDA PARTELA	ADALPOM (RESCHYOS)	URTEA ZEMBATOKA AND BAPORTE	USCERROO / AMO / UCLIS	ZONETA / A PROPOSICIONES	ZONA MODIFICO
81	Aumento Igualdo Conante	900.01	Frua, Uda / Conantama	17	2.643.818.07	300.000.00	1000
GUZTIRA / TOTAL					2.643.818.07	300.000.00	1000

ANUEKUTUKO ZUZENKETA/PROPAGAN PARTIDUKUAK/
DIREKTAZ PARDURAKU PREZENTAZIOA
04.06

AN P	ZUZENKETA BEZAK TIPIKORRENTZUA	PROGRAMA	KONTABILIA KATEGORIA	AZALPENA DESCRIPCION	URTEA ZEMATEKOA ANU MOTUA	HABERAKO MOTUA MOTUA	ZUZENKETA/PROPAGANENK		EKOIA MOTUA
							EMERENTZIA EMERENTZIA	EMERENTZIA EMERENTZIA	
18	Hudak Gasto Konten	ELUSTEAK/HABERAK	200.01	Kontratazioa / Fondo de	17	1.707.545,10	1.000.000,00		
19	Hudak Gasto Konten	DEK-ERABERAK / DE BIKIDIA HUMANAK	220.99.02	Ikasle-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	60.000,00	10.000,00		
20	Hudak Gasto Konten	HERTZAREN PARTE-HARTZEA / PARTIDUKO GIZAKIAK	220.99.02	Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	40.000,00	60.000,00		
21	Hudak Gasto Konten	HERTZAREN PARTE-HARTZEA / PARTIDUKO GIZAKIAK	220.99.05	Partiduko aktibitate-erakundeak / Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	15.000,00	15.000,00		
22	Hudak Gasto Konten	HERTZAREN PARTE-HARTZEA / PARTIDUKO GIZAKIAK	220.99.06	Partiduko aktibitate-erakundeak / Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	20.000,00	20.000,00		
23	Hudak Gasto Konten	EMERENTZIA / EMERENTZIA	220.99	Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	60.000,00	20.000,00		
24	Hudak Gasto Konten	HONDAKINEN HAZKUNTZA / SAN BARRIO / TRATAMIENTU DE RESIDUOS / SAN MARCOS	42.01	Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	6.705.696,04	700.000,00		
25	Hudak Gasto Konten	PLANTACIONES DE SOLIDARIDAD	220.99.02	Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	20.000,00	50.000,00		
26	Hudak Gasto Konten	HER-MUCROPTASUNA / BIKIDIA HUMANAK	219.01.02	Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	94.500,00	21.000,00		
27	Hudak Gasto Konten	HER-MUCROPTASUNA / BIKIDIA HUMANAK	227.03.01	Herri-entzuleen prebentzio-proiektuak / Luzerak eta jarduerak / Partiduko	17	94.500,00	40.000,00		
							1.800.000,00	600,00	

ANEXO TITULO 2. CREDITOS POR PAGOS DE BIENES Y SERVICIOS
EN BENEFICIO DEL PRESENTADO

Nº P	Asamblea General Trimestral	PROGRAMA	CONTABILIDAD ANALITICA	DESCRIPCION	LÍNEA ANALITICA	CREDITOS POR PAGOS DE BIENES Y SERVICIOS	
						MONEDA NACIONAL	MONEDA EXTRANJERA
18	Asamblea General	LANGUETA ETI GARAPONGO MEDICINA / COOPERACION Y EDUCACION PUBLICA DEL DESARROLLO	481 01	Lengueta predestinado de- través de un convenio con el Centro de atención médica / Servicios de atención	17	574.847,33	126.000,00
19	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	202 06 03 01 01 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	10.000,00	30.000,00
20	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	202 06 03 01 01 01 1	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	9.999,99	30.000,00
21	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	489 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	1.993.287,58	200.000,00
22	Asamblea General	ADAPTAMIENTO / APARTAMENTOS TURISTICOS	222 09 01	Adaptamiento de apartamentos turísticos	17	0,00	49.000,00
23	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	481 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	47.390,00	19.700,00
24	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	481 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	33.000,00	15.000,00
25	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 02	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	9.472,12	15.000,00
26	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 04	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	15.000,00
27	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 06	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	1.000,00
28	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 07	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	22.530,00	9.000,00
29	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	430 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	21.494.327,98	10.000,00
30	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 12	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	30.000,00
31	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 13	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	30.000,00
32	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 15	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	30.000,00
33	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	430 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	5.895.183,84	100.000,00
34	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 11	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	10.000,00
35	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 12	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	10.000,00
36	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 13	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	10.000,00
37	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 14	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	10.000,00
38	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 15	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	8.000,00
39	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 02	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	15.000,00
40	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 04	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	10.000,00
41	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 06	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	15.000,00	115.000,00
42	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	481 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	7.000,00
43	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	1.000,00
44	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 02	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	49.000,00
45	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 14	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	20.000,00
46	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 04	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	100.000,00
47	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 07	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	46.000,00	30.000,00
48	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 16	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	1.000,00
49	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	481 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	203.846,75	80.000,00
50	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	229 06 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	0,00	1.000,00
51	Asamblea General	COOPERATIVA / INSERCIÓN SOCIAL	481 01	Centro de atención médica / Servicios de atención	17	292.280,33	115.000,00

ANEXO 12: TITULO DIEZ VENTA DE PROGRAMAS FINANCIEROS
EMISIONES FINANCIERAS PRESENTADAS

Nº P	ZONAS/ETIQUETA TIPO EMISORA	PROGRAMA	CATEGORÍA PARTE	ADALTEMA DESCRIPCION	URTEA ABDO	IMPORTE MILLONES	ZONAS/ETIQUETA - PROGRAMAS/EMISORAS		ZONA MOTIVO
							IMPORTE MILLONES	IMPORTE MILLONES	
64	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	206.06.23	Auñeratu erabilteko sustatzearen irratizazio / Dintziazioa para el financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	36.000,00	14.000,00		
65	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	206.06.24	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	36.000,00	20.000,00		
66	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	207.94.22	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	0,00	12.000,00		
67	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	471.31	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	2.000,00	2.000,00		Subvenciones financieras
68	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	207.99.23	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	61.400,00	12.000,00		
69	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	208.33	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	20.000,00	27.850,00		Capitalización de acciones en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero
70	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	481.21	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	250.200,00	25.000,00		
71	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	473.32	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	5.250,00	5.000,00		
72	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	473.41	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	3.000,00	2.000,00		
73	Aumento Gasto Corriente	EUSKARA/EUSKERA	208.38	Financiamiento de acciones en los bienes comunes / Actividades para jóvenes en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero	17	10.000,00	5.000,00		Capitalización de acciones en el extranjero / Financiación de acciones en el extranjero
